



BEZERO KANALAK

Hainbat erataraz egon daiteke bezeroa gurekin harremanetan, izan ere, produktua erosteko asmoa izanez gero, hitz egiteko aukera asko egongo dira. Gure enpresaren sare sozialak ditugu, baita web orri bat ere, non bertan gurekin hitz egiteko aukera izateaz gain, produktuak ikusi eta erosteko aukera ere badago.



- **Denda:** Andoainen jarriko genuke denda, kale nagusian jende asko pasatzen denez gure salmentak eta enpresa handitzeko aukera ematen duelako. Denda honetan bi gela egongo dira, sarreratik hasita lehenengo gela denda fisikoa izango da, gure produktuak erakutsi eta saltzeko aukerarekin, eta bigarrena, atzekaldean, gure produktua sortzeko zein hobetzeko tailerra izango da.



- **Webgunea:** Web orri bat sortuko dugu, non gure produktuaren azalpena eta ezaugarriak azalduko ditugu. Bestalde argazkiak eta bideoak egongo dira produktua detaile guztiekin ikusi ahal izateko. Norbaitek erosi nahiko balu, telefono zenbaki bat eta gure enpresaren gmail-a ipiniko dugu, esku dirutan ere ordaindu daiteke, webgunean bertan txartelarekin erosi dezake edo paypal aplikazioaren bidez.



- **Sare sozialak:** Hainbat kontu sortuko ditugu gaur egun dauden sare sozialetan (Instagram, Twitter, Facebook...). Bertan gure produktuaren argazkiak eta bideoak ipiniko ditugu. Bestalde norbaitek erosi nahiko balu, sare sozialetan daukagun kontu bakoitzeko perfiean telefono zenbakia jarriko dugu, edo mezu bat bidaltzeko aukera dago, gurekin kontaktuan jartzeko. Emaila ere badugu, edozein zalantza argitzeko eta gurekin harremanetan jartzeko.